

Aurreneko txantxetarako aukera emango die gaur astigartar txiki eta helduei, Inuxente Krosak

Arratsaldeko 16:30etan hasita izango da; lehenengo haurren lasterketa egingo dute, eta ondoren, arratsaldeko 17:30etan, helduena.

ASTIGARRAGA INUXENTE KROSA

Abenduaren 28an da Inuxente Eguna, baina astigartarrek aurrea hartu diote, beste behin, egun horri. Gaur egingo dute, hain zuzen, Inuxente Krosa, Mundarro Kirol Elkarteak antolatuta.

Bi txandetan

Arratsaldeko 16:30etan hasita,

bi txandetan egingo dute herri lasterketa. Lehenengo, haurrek hartuko dute parte.

Adinaren arabera, lau ibilbide egingo dituzte. 2013-2015 urte artean jaiotakoek, ikatza-more kolore-ekaitz-ikatza ibilbidea egingo dute; 2010-2012 artekoek, ikatza-ibailur-kutxa-ikatza; 2007-2009 urte artekoek, ikatza-lizardi loreak-ikatza; eta azkenik, 2006a baino lehenago

jaiotakoek, helduen ibilbideko lehen bira egingo dute, 2,5 kilometrokoa, hain zuzen.

Haien ondoren, arratsaldeko 17:30etan hasiko da helduen lasterketa. Kale Nagusitik abiatuta, 6 kilometroko ibilbidea osatuko dute, herrian zehar; bukaera Ikatza parean izango du.

Merienda osasuntsua banatuko dute bukaeran; eta sari-banaketa helduen lasterketa

Arratsaldeko

15:30etatik aurrera eman ahal izango da izena, irteeran bertan.

amaitzean egingo dute.

Izena emateko, gaur ere bai

Aurretik izena emateko aukera izan bada ere, gaur ere izango da aukera, 15:30etatik aurrera, Kale Nagusian. Haurrek ez dute ordaindu beharko, helduek, aldiz, 5 euro. **K**



Oreinak

GOIZUETA ZINEA

Abenduko kultur agenda-barruan, *Oreina* pelikula eskainiko dute gaur, 12 urtetik gorakoentzat. Arratsaldeko 18:00etan izanen da, eskolako jangelan. Sarrera: 2 euro.

Jolas Txiki, bihartik aurrera

ASTIGARRAGA JOLAS TXIKI

Gabonetako oporraldiarekin batera, bihar emango diote hasiera Astigarragan, garai honetako ekintzei. Mundarro Kirol Elkarteak antolatuta, bihar hasiko da Jolas Txiki egitasmoaren lehenengo txanda. Kiroldegian izango dira, goizeko 09:00etatik 13:00era. Izena eman behar zen.

Ludoteka, Kiroldegian

HERNANI LUDOTEKA

Urtero bezala, Gabonetako Ludoteka antolatu du Hernaniko Udaleko jarduera fisikoa eta kirol sailak. Lau egunetan izango da bertan jolasteko aukera: bihar, eta abenduaren 26, 27 eta 30ean. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00era jolasak, ipuinak irakurtzen, etab. aritzeko aukera izango da, kiroldegiko 1. pistan.

Zozketa, AEK euskaltegiaren alde

HERNANI AEK EUSKALTEGIA

Urtero bezala, Gabonetako zozketa egingo du Hernanialdeko AEK-k hilaren 24ean, Gabon gau egunean. Zozketan parte hartzeko errifak arratsaldeko 18:00etatik aurrera erosi ahal izango dira, Plazan, eta zozketa, aldiz, Sare eta Etxerategi antolatutako manifestazioaren ondoren egingo dute. Antolatuzaileak adierazi du, urtero bezala, errifei esker jasotzen den dirua Hernanialdeko AEK euskaltegiei laguntzeko izango dela.

Hainbat ekintza Etxerat eta Sarek, «egoera jasangaitz honi amaiera eman diezaiozun»

Gabonetan zehar kalera aterako dituzte beraien aldarrikapenak, eta herritarrei deia egin diete «guztion inplikazioarekin soilik lortuko baita aurrera egitea», azaldu dute.

HERNANI PRESOKA

Gabonak ate joka dauzkagu, eta egun horietako antolatu dituzten ekintzen berri eman zuten atzo Etxerat elkarteak eta Sarek Tilosetan egin zuten prentsurrekoan.

«Familia askorentzat ez da sasoi gozoa; oraindik ere 264 preso baititugu Espainiako eta Frantziako estatueta zehar sakabanatuta, gehienak oso urrutiti. Denboran izugarri luzatzen ari den egoera lazarri honen ardura dute estatuek, legeek presoek aitortzen dizkieten es-



Tilosetan eskaini zuten prentsurrekoa, herritarren babespean.

kubideak etengabe urratzen baitituzte», azaldu zuten.

Hori horrela, «eskubide-urraketa horien amaiera exijitzeko, mobilizazioak ezinbesteko bihurtzen dira». Testuinguru horretan egingo dituzte, hain zuzen, Hernaniko ekintzak.

18 preso, Hernanin

Sarek eta Etxerategi elkarlanean antolatutakoak dira datozen egunotan egingo dituzten ekimenak: hainbat manifestazio eta 'Elkartasun-gunea' presoek mezuak edota opariak helaraz-

teko (antolatuzaileak arduratuko dira horiek banatzeaz).

Gogorarazi zuten «Hernanin 18 preso dauzkagula, gehien-gehienak lehenengo graduak, eta Gari eta Ibon larriki gaixorik daudela». Horregatik, deia egin diete herritarrei antolatutako ekintzetan parte hartzeri: «guztion inplikazioarekin soilik lortuko baita aurrera egitea. [...] Gabonetako ekimen hauetan urte luzeetako egoera jasangaitz honi lehenbailehen amaiera eman diezaiozun guztion artean». **K**

EGITARAUA

ABENDUAK 24

19:30 'Hator, hator mutil/neska etxera' lelopean manifestazioa egingo da Hernanin, ohi bezala, eta amaieran preso ditugun herritarrek gogoratzeo kantu bat eskainiko diegu.

ABENDUAK 27

'Elkartasun-gune' bat irekiko dute, presoek norbere eskaintza egin eta elkartasuna adierazteko. Eguraldiaren arabera, herriko Kaxkoan bertan edo Tilosetan gune bat prestatuko dute bakoitzak bere ekarpena egiteko edota, hala dagokionean, bere idatzia edo oparia bertan uzteko.

20:00 Amaiera ekitaldia Tilosetan.

ABENDUAK 28

12:00 Manifestazioa Donostian, ume motxiladunak ardatz hartuta.

URTARRILAK 11

Nazio mailako manifestazioak, Bilbon eta Baionan. Autobusak jarriko dira bertaratzeko. Informazioa aurrerago zabalduko dute.

Aitor Ruiz de Eguino
OPARI ARTISTIKOAK
ESKULTURA, PINTURA, ZERAMIKA
Santa Barbara 58, Hernani
www.aitorruizdeegino.com
685 76 82 45

IKATZA
Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatza@abema@gmail.com

AINHOA
Janaridenda
Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

ALSTUDIOA BARNE DISEINUA + ARKITEKTURA
eguberri + urte berri on :)
www.alstudioa.eus
Kale Nagusia 53 - 20120 Hernani - 943 382 567 - are@alstudioa.eus

EGURALDIA GAUR Eguraldi kaxkarrarekin emango diogu hasiera negurari. Zaparradak eta haize zakarra izango dira nagusi. Horrekin batera, tenperatura jaitsi egingo da. **Min.9° / Max.15°**

BIHAR Giro egonkorragoa izango da bihar. Lainoak eta ostarreak tartekatuko dira zeruan eta hego haizea bueltan izango da. Tenperaturak ere gora egingo du. **Min.9° / Max.15°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarraiko Udala

Doberako Udala

Goizuetako Udala

Arango Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauzez: Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ISUN JAIAREN GUBERNU VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

PREZIOA

Txistorra jaten jarraituko dute gaur, Portu eta Lizeaga auzoek

Santo Tomas egun haundia biharamunean ospatuko dute Portuko eta Lizeagako auzotarrek; 12:00etan eta 12:30etan, hurrenez hurren.

HERNANI SANTO TOMAS EGUNA

Atzo izan zen Santo Tomas egun haundia. Hernanin ere nabaritu zen, gainera. Txistor-jate ederra egin zuten Goizekin, Plaza Berrin CD Hernani futbol saileko kideen eskutik, baita Etxeberrin ere, Auzokide auzo elkarteak antolatuta.

Horrez gain, Donostian elkartu ziren hernaniar asko eta asko, tartean, San Joan Konpartsako kideak.

Festa gutxi izan zuten batzuk, eta gaur izango dute hura luza-tzeko aukera, eguerdian egingo baitute txistor-jana Portu eta Lizeaga auzoetan. Portukoa, 12:00etan hasita, Ibarrolaburu plazan; eta Lizeagakoa, aldiz, beranduago, 12:30etan, Urumea ikastolako aterpean.

Lizeagako Gibelalde elkarteak saskia zozketatzeko aprobeztatuko du baita ere, eta aukera emango du bazkide egiteko. **K**



Ederki pasa zuten Etxeberriko auzotarrek atzo, Auzokideren txistor-jatean.



Santo Tomaseko feria egin zuten ostiralean Inmakulada ikastetxean.

«Jarraipeneko aurrekontuak» onartu dira, Elkarrekin Podemosen ustez

Udal gobernuarekin negoziatzeko, 900.000 euroko proposamenak egin ditu udal taldeak.

HERNANI ELKARREKIN PODEMOS

Ostegunean onartu zuen Udaleko Plenoak 2020ko Udal Aurrekontua. Bozketa horretan, abstenitu egin ziren Elkarrekin Podemos-Orain Hernaniko bi zinegotziak, eta arrazoiak azaldu dituzte, ohar baten bidez.

Bertan azaltzen dutenez, udal taldeak dituen bi zinegotziak abstenitu egin ziren: «ez dira talde berri batengandik espero genituen aurrekontuak; jarraipeneko aurrekontuak dira, eta etorkizunerako proiektu sendorik ez dagoela adierazten dute. Asmo soilek osatzen duten gobernu-plan bat dago».

Taldeak adierazi du, nego-

ziatzeko, 900.000 euroko proposamenak egin dituela: «Hernani garbiago bat, atseginago bat nabarmenduz eta politika inguruaren eta pertsonen zaintzan oinarrituz».

Horietatik, «%10a besterik ez dira onartu». Dena den, diote, abstentzio honekin «konfiantzazko boto bat eman nahi diogu udal gobernu berriari». «Espero dugu udal gobernu honek beste sentsiberatasun bat edukitzea, inklusiboagoa izatea, oposizioko talde guztiak errespetatzea eta gehiengo osoarekin arrabola ez pasatzea».

Lau proposamen, barneratuta Elkarrekin Podemos-Orain Her-

nani taldeak egindako lau proposamen izan dira EH Bilduren udal gobernuak onartutakoak. Goiz Eguzkiko parkea birplan-teatzeko (1.000 euro), nahiz eta haien ustez «ezer gutxi» egin ahal izango den.

Garbiketa gehiago eskatu zuten, baita Horkonpon aplikazioa martxan jartzea: «horretatik 20.000 euroko partida gehitu dute espaloiak garbitzeko». Baita ere onartu dituzte: Udaltzaingoa indarkeria sexistan formatzeko partida, baita ingurumenean, animalien trataeran eta jokoan ere. Baita apeaderoarekin lotura berritzea ere.

Ez dituzte kontuan hartu, halaber: sokamuturrarako partida kentzea, aparkaleku bat egitea, txotx denboraldian autobus mugatzea, turismo eredu aldatzeko, herriko jantokiak udalekotzea, etab. **K**

Latxe aldizkariaren azkeneko alea, kalean

Burruntzi, Kattagorria eta Dortokaren istorioek atsedena hartuko dute: «noiz arte, ezin jakin».

URUMEA LATXE ALDIZKARIA

Dagoeneko kalean da Kronikak argitaratutako Latxe aldizkariaren 16. alea. Ohi bezala, Kronikaren bulegoan (Larramendi kalea, 11) jaso ahal izango dute harpidedunek; han ere erosi dezakete nahi dutenek, baita Dorronsoro okindegietan ere, Lizeaga kalean nahiz Akarregi poligonoan.

Albiste tristea, bukaeran

Ale honetan zehar, Olentzeroren istorioan murgiltzeko aukera

izango dute etxeko txikiak.

Azkeneko orrialdean, ordea, albiste tristea dakar: «atseden pixka bat hartzeko garaia iritsi da. Noiz arte, ezin jakin», iragarri dute. Hori horrela, Burruntzi, Kattagorria eta Dortokaren istoriorik gabe hasiko dugu 2020. urtea, baina nork daki, nola bukatuko ote dugun!

Harpidedun, irakurle eta laguntzaileei, eskerrak

Latxe ezin agurtu daiteke, aldiz, eskerrak eman gabe, bai irakurle, baita harpidedun eta bidean izan diren laguntzaileei ere: «abentura hauek denak zuen laguntzarekin, irakurle guztien laguntzarekin bizi izan dituzte gure lagunak. Eskerrik asko, bide hau guztia gurekin egiteagatik», dio 16. alearen azkeneko orrialdeak. **K**



Erabat hunkituta jaso zuen oparitxo Juan Jose Arregik igandean.

Omenaldi xumea, Juan Jose Arregiri

HERNANI TXISTULARIAK

Emanaldi berezia izan zuten aurreko igandean Goizetik Udaltxistulari Taldeko kideek. Juan Jose Arregi aipaizaren musika-

-ibilbideari errebaso egitearekin batera, omenaldia ere egin baitzioten, eta bertan izan zen Agirre bera ere. Hunkituta jaso zuen, bertaratuen berotasuna.

Asteko hirugarren jardunaldia, gaurkoa

GOIZUETA UMORE ONA PILOTA ELKARTEA

Esku pilotak hartu du herria egunotan, ostiraletik hasita, partida asko eta asko jokatu dituzte goizuetarrek. Gaur izanen dituzte aste honetako azkenak, goizeko 10:00etan hasita. Lehenengo, Nafarroako Kirol Jokuen Txapelketari dagozkion bi partida jokatu dituzte, kimuen mailakoak biak. Eta ondoren, Umore ona Pilota Txapelketako 22 urtez azpikoei dagozkienak: Aristi (Getaria) eta Salegi (Irurtzun), Pagazpeko Galarraga eta Iruretagoienaren kontra; Arribillagak (Ardoi) eta Goikoetxeak (Irurtzun), Larraungo I. Galartza eta I. Gurra hartuko dituzte; eta azkenik, Andoingo Etxezarreta eta Arratek aurrez aurre izanen dituzte Oiarpeko I. Ugalde eta E. Etxeberria.

IRAGARKI MERKEAK

Martxan dagoen alimentazio denda salgai, jubilaria egitekin, Hernaniko Etxeberri auzoan.

Deitu: 647 886 950

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**